

OROI-TXOSTENA

SERANTES KULTUR ARETOA AEAren JARDUERA (2016. URTEA)

Txosten honen bidez Serantes Kultur Aretoak herritarrei ematen dien zerbitzuaren gaineko informazioa emango dugu, batez ere kuantitatiboki. Datuetatik ateratzen den hausnarketa analisi eta ebaluaziorako bitarteko kualitatiboekin osatu beharko litzateke. Zoritzarrez, horiek salbuespen gisa baino ezin dira erabili, suposatzen duten gastuari ezin zaiolako aurre egin. Hala ere, datu kuantitatiboak, asko direnez, herritarrek zerbitzuarekin duten asebetetze maila neurtzeko nahikoak dira. Dena den, erreferentzia gisa hartzen den diakronia-seria mantentzeak adierazten du SKAko prestazioek erabilera-maila handia mantentzen dutela.

Azken batean, hurrengo lerrootan agertuko dena 2016. urtean zehar SKAn burutu den jardueraren datu kuantitatibo garrantzitsuenak dira. Hori guzti hori aurreko ekitaldiari eta, zenbaitetan, aurreko ekitaldiei dagozkien datuen bilakaeraren analisi konparatiboaren ereduaren barruan.

ZINE PROGRAMAZIOA

2016an, guztira 85 film estreinatu ziren, iazko 88en aldean. Hala ere, 85 film berri horiek hilez hil hartuta eta programazioan izandako luzapenak, areto aldaketak edota aldizkako emanaldiak kontuan hartuta, iazko 52 asteetan zehar 124 film izan ziren.

Urtean zehar 73.489 ikus-entzulek erosi zuten zinemarako txartela, hau da, 6.124 ikus-entzule hileko. Haietatik % 16,34 SKAko bazkideak ziren.

Aurreko urtean, berriz, 75.497 ikus-entzule izan ziren eta haietatik % 18 bazkideak. Azken batean, film zehatzen baten arrakasta handiago edo txikiagoa dela kausa gertatu diren aldaketa txiki batzuk, baina ez dute joera aldaketarik adierazten.

Diru sarrerak 328.272,50 eurokoak izan ziren, 2015. urtean bildutako zenbatekoaren parekoa.

Aurreko zenbatekoari SKAko bazkide-txartelen truke jasotakoa gehituta, 403.934,50 euro dira (2015ean 402.593,50).


Iaz filmak emateko eskubideak erosteko guztira 227.809,27 euro gastatu zela kontuan harturik, 176.125,23 euroko aldeko balantza dago.

Hurrengo koadroan ikusten den bezala, zinea ikustera etorri ziren ikus-entzuleen kopurua, nahiz eta edozein kontsumo errepikariari lotutako betiko gorabeherak izan, azken bost urteei dagokien batz bestekotik oso hurbil dago, hau da, 74.830 ikus-entzule.

Gogoratu beharra dago 2013. urtean, krisi ekonomikoa tarteko, zine kontsumoa nabarmen jaitsi zela eta 2014an, berriz, “8 apellidos vascos” filmaren estreinaldiak oso emaitza bikainak lortu zituela txarteldegian. Azken bost urte hauetan SKAn ikus-entzuleen kopuruari dagokionez izan den batz bestekoa 75.000 izan da.

2012tik 2016ra izandako ikus-entzuleen bilakaeraren grafikoa

URTEA	2012	2013	2014	2015	2016
IKUS-ENTZULEAK	72.455	66.230	86.481	75.497	73.489



Beste alde batetik, jarraian erakusten den taulan ikusten den bezala, urterik urte errepikatzen den joera dago, zein publikoarentzat interes handiko film bereziren batek baino ez duen apurtzen.

Ikus-entzuleen grafikoa hilez hil 2014tik 2016ra

	2014	2015	2016
URTARRILA	6.919	5.192	6.663
OTSAILA	5.175	6.773	6.825
MARTXOA	20.606	5.931	6.165
APIRILA	11.341	4.672	5.170
MAIATZA	3.796	4.131	3.916
EKAINA	4.336	5.002	4.070
UZTAILA	4.123	7.604	4.967
ABUZTUA	5.618	3.116	4.270
IRAILA	4.424	4.856	5.099
URRIA	4.436	6.788	10.138
AZAROA	5.990	9.372	5.616
ABENDUA	9.729	12.060	10.590
	86.481	75.497	73.489

Zine Klubari dagokionez, iaz guztira 8.214 ikus-entzule izan zirela adierazi behar dugu. 2015ean, berriz, 8.807.

Iazko datuetan ikusten den beherakada txikia film bat gutxiago eman izangatik izan da, programazioaren egutegiaren gorabeherak direla-eta. Izan ere, adierazitako kopuruari iaz zine klubeko saioetan batz bestea izan ziren 551 ikus-entzuleak gehituko bagenio, ikus-entzuleen kopurua guztira 8.815era helduko zatekeen.


Saioko ikus-entzuleen kopuruak bataz beste aurreko urteetako antzekoak direla esan dezakegu. Zifra hauek, edonola ere, eskaintza honen arrakasta adierazten dute, duen interesak ez ezik, SKAk duen audientziak fidelizatze politikarekin duen loturak ere azaltzen dutena.

Gure bazkideak dira zine klubeko eskaintza gozatzen dutenak. Programazio hori doan eskaintzen zaie.

Ikusten denez, 2013an gorakada nabarmena izan zen; izan ere, urte hartan ohiz kanpoko bazkide kopurura heldu zen, nahiz eta krisiak kontsumoaren atzerakadan unerik gorenena izan zuen. Ildo honetan, Zine Klubeko eskaintza aisialdirako oso aukera merkea zen.

Gainontzeko urteetan antzeko kopuruak daude eta, funtsean, programatutako film kopuruaren arabera igo eta jaisten dira. Azken hori jai-egutegiak mugatzen du.

	2012	2013	2014	2015	2016
ZINE KLUBEKO IKUS-ENTZULEAK GUZTIRA	9.529	12.643	9.968	8.807	8.264
BAZKIDEAK DIREN IKUS-ENTZULEAK	7.674	11.228	9.138	8.164	7.618



ESZENA PROGRAMAZIOA

2016an, guztira, 45 ikuskizun aurkeztu ziren SKAn. Haietatik 8 umeentzat edo familia osoarentzat izan ziren, 3 dantza-emanaldiak (haietako bat umeentzat), 3 lirika eta musika emanaldiak, 6 kontzertu eta 25 italiar erako antzezlanak nagusientzat (haietako 5 euskaraz izan zirela).


Guztira, 18.223 ikus-entzule izan ziren. Aurreko urtean, berriz, 43 ikuskizun programatu ziren eta 14.667 ikus-entzule izan zen. Hau da, iaz 3.556 ikus-entzule gehiago izan ziren.

Txarteldegiko diru-sarrerak 247.270,46 eurokoak izan ziren, 2015eko 186.716,73 euroen aldean.

Aurreko zenbatekoek hobekuntza nabaria adierazten badute ere, adierazgarriena saio bakoitzeko batz besteko ikus-entzuleen kopuruaren igoera da. Zehatzago esanda, 2016an 405 ikus-entzule izan dira batz beste saio bakoitzean eta 5.498 euroko sarrerak; aurreko urtean, berriz, 341 ikus-entzule eta 4.342 euro izan zirelarik.

Eszena-jarduera profesionaletako ikus-entzuleen kopuruan bost urte hauetan izan duen bilakaerak gorabeherak izan ditu, 2013koa izan zelarik punturik baxuena; urte honetan krisiaren eragina bereziki islatu zen kultura-kontsumoan. Aurreko urtean, ordea, gauzak oso termino pozgarrietan jarri ditu, bosturtekoaren emaitzarik onenak izan baititu. Joera hori mantentzen den edo une jakin batekoa baino ez den konprobatu beharko da hurrengo urteetan.

	2012	2013	2014	2015	2016
ANTZERKIKO IKUS-ENTZULEAK					
GUZTIRA	15.745	11.827	15.983	14.667	18.223



SKA-ko ARETOAK ETA KRESALA LAGATZEA

Iaz SKAko hiru aretoetan hainbat erakundek eta udal arlok antolatutako 49 ekitaldi eta jarduerak bildu ziren. Horietatik 15 alokairuan izan ziren eta 21.400 euroko diru-sarrerak ekarri zituzten.

Guztira 16.868 ikus-entzule egon ziren (2015ean burututakoetan baino 2.122 gutxiago).


Kresala aretoak, berriz, 141 ekitaldi eta 6.610 erabiltzaile jaso zituen. Horrek esan nahi du 2015ean baino 48 ekitaldi gehiago izan zirela eta programatutako jardueretara 2.250 pertsona gehiago izan zirela.

Kasu honetan joera logikoagoa litzateke 2014 eta 2015eko zenbatekoak egonkortzea, hots, zifra txikiagoak, Kresalan burutzen ziren ekitaldi asko Casa Torre Jauregira pasatu direlako. Iaz Musika Eskolak erabili zuen klase batzuk emateko eta hori izan daiteke igoeraren arrazoi bat. Bestetik, erabiltzeko eskaera gehiago izan ziren eta ez dakigu kontu puntuala izan den edo joera aldatuko den adierazlea.

CASA TORRE JAUREGIA

Iaz Casa Torre Jauregiko aretoetan antolatuta ziren ekitaldi anitzetan 17.329 lagun bildu ziren guztira, aurreko urtean baino 2.700 gehiago.

Casa Torre Jauregiko aretoen erabilera 16.000 erabiltzaileetan egonkortuko dela ematen badu ere, grafikoan ikusten den bezala, zifra horrek urteko jarduera globalaren igoera edo jaitsieraren arabera edo programatutako jardueretara joandako pertsona kopuruaren araberrako aldaketa logikoak izango ditu.




Erakusketa Aretoari dagokionez, mota askotako 16 erakusketa burutu direla gogoratu behar dugu (2015ean baino bat gutxiago). Guztira, izan ziren erakusketek 15.514 pertsona bildu zituzten, iaz baino 253 gutxiago. Zifra honen arrazoia argia da, erakusketa gutxiago izan zirelako.

Bere aldetik, Interpretazio Zentroak 227 bisita partikular izan ditu eta heziketa zentroetako zenbait antolatutako talde.

Guztira, zine eta antzerki jardueretan eta aretoak lagatzean 152.737 lagun egon ziren 2015ean, hau da, 2014an baino 20.500 erabiltzaile gutxiago. Baina, lehenago adierazi dugun bezala, urte hartan ikuskizun bereziak izan ziren eta horiek kopuruak nabarmen igo zituzten ohiko zenbatekoetatik. Grafikoan ikusten den bezala, iaz urte ona izan zen publikoaren aldetik.

Kontuan hartutako bost urteetan, batz bestea, 154.653 erabiltzaile izan dira, hots, 2016ko kopurua baino handiagoa, grafikoan ikusten den bezala.



Aurreko grafikoaren interpretazio zuzena egiteko, komenigarria da azaltzea 2014an adierazi dugun 18.000 ikus-entzuleen batz besteko kopuruan aldaketa izan zen. Arrazoiak honakoak dira: urte hartan, bere garaian azaldu zen bezala, La Guerra de las Galaxias zine-sagaren inguruan egindako erakusketa izan zen eta "Ocho apellidos vascos" filma eman zuten, eta bi jarduerak horiek oso emaitza bikainak izan zituzten. Hortaz, horrelako salbuespenik izan ez zuten iazko zifra zifra onak dira eta Arte Eszenikoei dagozkienak, adibidez, oso pozgarriak.

JAIETAKO JARDUERA

Jaietako jardueretan Serantes Kultur Aretoak azken urteetako baldintza berberetan hartu du parte.

Inauteriak

Merkataritza Arloarekin batera, Itsas Inauterietako XI. Edizioa otsailean ospatu zen.

Martxoaren 4an izan zen inauterietako jaitsieran 39 taldek hartu zuten parte (iaz baino 10 gutxiago).

Jaitsieran 1.000 pertsona inguruk hartu zuen parte, eguraldi txarragatik jaitsiera bertan behera geratzeko arriskuan egon bazen ere. Azkenik, jaitsiera burutu zen eta publiko ugari gozatu zuen.

Jaitsiera eta gero 23:00ak arteko berbena izan zen eta horren ostean jaia taberna gehien dituzten kaleetara pasatu zen eta ez zen aipatzeko gorabeherarik izan.

Kornite eguna

Kornite erromeria martxoaren 28an izan zen haize boladen arriskua bazegoen ere. Izan ere, agintaritzak alerta horia adierazi zuen eta ezin izan ziren programatutako jarduerak burutu, puzgarriak, agertokia eta abar ezin izan zirelako muntatu.

Hala ere eta nahiz eta haizea zakarra izan zen, ehunka pertsona igo ziren Serantes mendira, tradizioak agintzen duen modura, eta horregatik mantendu zen arratsaldeko azken ordura arte segurtasun-operatiboa.

San Jorge

San Jorge jaiak bi asteburutan zehar egin ziren, apirilaren 15etik 17ra eta 22tik 24ra.

Aurreko urteetan ez bezala, lehen asteburua Txosnaguneak, El Abra ostalari elkarteak eta Santurtzi Gastronomiak antolatu zuten. Bigarrena, berriz, Serantes Kultur Aretoak.

Honela, jai hauetako aspaldiko antolakuntza-eredura itzuli zen, azken urteetan SKAren proposamenak eta gainontzeko erakundeek nahasten zirelako. Hala ere, beti egin den modura, aipatutako erakundeek programatutako jardueren publizitatea zabaldu zuen SKAk eta behar zuten azpiegitura utzi zien.

Eguraldiak, zoritxarrez, ez zuen lagundu ea jaietako egun guztietan euria egin zuelako. Dena dela, eguraldia gorabehera, jendearen jairako gogoak ez zen galdu eta asko izan ziren programatutako jardueretara joan zirenak, jarduerak ez zirelako bertan behera utzi. Apirilaren 16ko Sardinaren erronka eta apirilaren 23ko umeen parkea Gernika parkera eraman behar izan ziren.

Karmengo jaiak

Karmengo jaiak uztailaren 8tik 17ra izan ziren. 150 ekitaldi burutu ziren, askotarikoak, bai publikoa eta bai gaiak anitzak izan ziren eta.

Nahiz eta eguraldia egunero ona izan ez zen, ia programatutako jarduera guztiak burutu ziren, astelehen arratsaldeko umeen parkea izan ezik, euriagatik bertan behera geratu zena.

Hurrengo hauek izan dira jendetsuenak:

Bederatzi gauetan burutu ziren kontzertuak 80.000 ikus-entzule bildu zituztenak eta bereziki Manuel Carrasco eta Juan Maganek zeinetan 25.000 eta 30.000 pertsona bildu ziren hurrenez hurren.

Ohi bezala, sardinada jaietako lehenengo egunean egin zen. Tona bat sardina banatu ziren antolatzaileek jarritako pailetan 25.000 pertsonen artean.

Itsas prozesioan 30.000 lagunetik gora bildu ziren eta ehun ontzi baino gehiagok parte hartu zuten inolako gorabeherarik gertatu gabe.

Ekitaldi handi hauetatik kanpo, jaietako plangintza eta antolakuntza erakunde eta pertsona askoren parte hartzeari esker izan ziren, beren ekarpenekin jai herrikoiak egiten lagundu baitzuten.

Jaien antolakuntzan izan zen parte hartzeari buruzko datu gisa, apiriletik jaietako hasierara arte Serantes Kultur Aretoak herriko talde eta elkarteekin hirurogei bilera baino gehiago egin zituela adierazi behar dugu.

Iaz helduen 49 koadrila eta umeen 31 erroldatu ziren. Guztira, 1.117 koadrilakidetik gorak hartu zuten jaietan parte, 2016ko jaietan parte hartze handiena izan zelarik, 1987an mugimendu hau jai zenetik.

Era berean, jaien egitarauaren antolakuntzan 32 elkarte edo taldek hartu zuten parte adierazi nahi dugu, 56 jarduera burutuz.

Azken batean, 2016ko Karmengo jaietan parte-hartze handia egon da, bai antolakuntzan eta bai jaietan bertan, Santurtzi eta Bizkaia osoko milaka lagunek hartu baitute parte jaietan. Izatez, eta Metrok emandako datuen arabera, garraio hori erabiliz 46.000 pertsona baino gehiago hurbildu ziren gure herrira eta, guztira, 10 jai egunetan 400.000 pertsona baino gehiago ibili ziren jai-eremuan zehar.

Jaiak, nahiz eta jende ugari ibili zen eta zenbait ekitalditan jende andana bildu zen, gorabeherarik gabekoak izan ziren, besteak beste diseinatu zen segurtasun-operatiboari esker. Hortaz, ERNE sindikatuaren adierazpenak ez zirela egokiak izan esan nahi dugu, alarmismoa sortzeko oinarririk gabeko salaketak adierazi zituztelako eta gainera, garaiz kanpo.

Gogoratuko dugu jaietako azken larunbateko Juan Maganen kontzertuan bildu zen jendetza Madrid Arenas-en gertatutakoarekin konparatu zela eta konnotazio dramatikoengatik barkaezina da eta guztiz inkongruentea, gure jaiak duten ezaugarrietako bat, jakina denez, segurtasuna eta lasaitasuna direlako (beste udalerrri batzuetan gertatutakoarekin konparatzen bada, batez ere) eta jende ugari biltzeko sortzen duen deserosotasuna (subjektiboa dena) "arrisku hurbilarekin" nahastea, gutxienez, ez da profesionala edo okerragoa da.

Sardinera Eguna

Urriaren 1ean, hirugarren urtez, Sardinera eguna burutu zen. Beste udal arlo batzuek eta herriko elkarteek parte hartu zuten, baina Serantes Kultur Aretoak antolatu zuen.

Erromeria kutsu handia duen jai honek, gure ustez, emakumeak omentzeko marko esanguratsua izan behar du; batez ere, arrantza jarduerarekin lotutako lanei bizitza erdia baino gehiago eskaini dieten emakumeei. Hortaz, Memoria Historikoa mantentzeko jarduera da, gure herriko leku ikonikoan burutu zena, hots, portuan.

Helburu honekin eta diseinatutako egitarauarekin, oso ondo joan zen jaia, nahiz eta egunaren hasieran euri arriskua egon zen.

Azkenik ez zuen euria egin, baina eguraldi iragarpena txarra zenez, Mahastieta eskolako patioan egin zen herri bazkaria eta denbora tarte horretan portuko jai-giroak behera egin zuen. Hala ere, arratsaldeko jarduerak aurreko bi urteetan bezala burutu ziren jende ugari parte hartuta eta giro onean.

Hartu dugun eskarmentuak jarduera hori behar bezala egokitzen lagunduko duela uste dugu, laster Santurtziko jai-egitarauan ezinbestekoa izango delarik.

GABONETAKO JARDUERAK

Arlo honetan aipagarriena zera da: iaz Serantes Kultur Aretoak hartu zuela bere gain Gabonetako jarduera gehienek ardura. Hortaz, Erregeen Kabalgata antolatzeaz gain, SKAk Olentzero egunaren eta Gabonetako Haur Parkeen antolakuntza hatu zituen bere gain.

Hiru GHPak Gernika parkean, Kabiezeseko Kiroldegian eta Mamarigako pilotalekuan burutu ziren abenduaren 26tik urtarrilaren 5era (urtarrilaren 1ean izan ezi), 11:30etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era (abenduaren 31n eta urtarrilaren 5ean izan ezik, goizez baino ez zirelako zabaldu).

Gernika parkeko GHPan 14.382 pertsona izan ziren; Kabiezeseko kiroldegian 14.585 eta Mamarigako pilotalekuan 3.410.

Olentzeroa Zugaitza dantza taldearekin batera antolatu zen eta goizez Begoñako Andra Mari Egoitzan egin zuen bisita. Arratsaldez, ohi bezala, kalejira burutu zen eta azkenik Casa Torre Jauregian izan zen harrera.

Kalejiran 300 pertsona inguru aritu zen eta Olentzerok 1000 umetik gora hartu zituen Casa Torre Jauregian.

Azkenik, Errege Magoekin lotutako guztia SKAkoek eta DAEM elkarteak burutu zutela gogoratu nahi dugu.

Urtarrilaren 3an Casa Torre Jauregian Hiru Erregeen postariaren harrera egin zuten Santurtziko ume guztiek. Ekitaldian ez zen gorabeherarik izan eta hurbildu ziren ume guztiak hartu zituen. Arratsaldeko 17:30ean hasi zen gutxi gorabehera eta 21:00etan bukatu.

Urtarrilaren 5ean, 16:30ean, Erregeak heldu ziren itsasoz Santurtzira eta herriko Alkateak arrantza-portuan harrera egin eta gure herri kuttunaren giltzak eman zizkien. Honen ostean, Kabiezesera abiatu ziren 18:30ean Kabalgatari hasiera emateko.

20:00ak aldera hasi ziren Errege Magoak umeak Casa Torre Jauregian hartzen eta 22:30ean bukatu zen jarduera.

Kabalgata 20.000 pertsona inguruk jarraitu zuen eta Casa Torre Jauregiko harreran 4.500 izan ziren gutxi gorabehera.

BESTE ZENBAIT JARDUERA

SKAk herriko hainbat elkarterekin dituen lankidetzak hitzarmenen bidez ekitaldi askotan aritu da lankidetzan. Ekitaldiok euren izaeraren arabera behin egitekoak izan daitezke edo SKAren programetan behin betiko sartuta geratu, batez ere jaietako jarduerari dagokienez.

Lehenengoz, Santurtziko Arte Plastikoetako Elkartearrekin daukan hitzarmen baten bidez lokal bat utzi zitzaion Santa Eulalia kalean eta arte plastikoetako hainbat tailer egiteko diru-laguntza ematen zaie. Tailer hauetan 300 lagunetik gora ibiltzen dira.

Lagun Zaharrak Abesbatzak SKAren diru-laguntza eta laguntzarekin Abesbatzen Topaketan 37. edizioa antolatu zuen. Honetaz gain, Koralak Gabonetako bosgarren kontzertu berezia egin zuen abenduaren 30ean, Musika Bandarekin batera.

Union Musical Vizcaína musika bandak kontzertu eta emanaldi batzuk eman zituen jaietan eta jaietatik kanpo. Berezi aipatzekoa da Karmengo jaietan eman zuen kontzertu arrakastatsua “Los Secretos” taldearekin batera.

Bestetik, Santurtziko Txistulari Taldeak 19 emanaldi eman zituen, nabarmenena izanda Karmengo jaietan Niko Etxart kantariarekin batera egin zuena.

Eraldoi eta Buruhandien Mendi Alde konpartsak, zeinek Autonomiadun Erakunde honekin lankidetzak hitzarmena sinatu duen, 10 kalejira egin zuen herriko jaietan.

Horretarako sinatutako hitzarmenari esker, Denontzako Auzo Elkarteak Mahastiak Elkarteak Errege Magoen kabalgata antolatu zuen.

Bestetik, diru-laguntzak emateko indarrean dagoen araudiaren arabera, Herriko Jaien inguruan antolatu zituzten jarduerengatik diru-laguntzak eman zitzaizen zenbait erakunderi, dagokien diru-sailaren kargu eta herriko 5 dantza talderi hainbat kontzeptuengatik.


Bukatzeko, santurtzibiz webgunearen administratzailea den Juan Carlos Beltran de Heredia jaunarekin sinatutako hitzarmenari esker, 8.000 argazki baino gehiagoko artxiboa dugula adierazi behar dugu. Artxiboan gero eta argazki gehiago dago eta gure historia argazkien bidez ezagutu nahi duten pertsona guztiek dute eskuragarri.

Era berean, Karmengo Amabirgina ontziak zenbait itsasaldi burutu zituela gogoratu nahi dugu; haietako gehienak Kultura Arloak antolaturik herriko ikasleentzat eta Turismo Bulegoak jende askorentzat. Hori guztia, SKAk hiru santurtziarrekin duen lankidetzak hitzarmenari esker; izan ere, santurtziar horiek ontzia mantentzeaz eta gobernatzeaz arduratzen dira, euren borondatez eta ezer jaso gabe.

SKAko BAZKIDEAK

2004an hasitako bazkide-politika oso bide eraginkorra izan da publikoa finkatzeko eta publiko hau SKAk duen jardueraren aholkulari eta Autonomiadun Erakundearen komunikazio-politikak eraginkortasun handien izatea lortu duena izan da.

Grafikoan politika honek azken bost urteotan izan duen bilakaera ikusi ahal da:




Joera zein den jakiteko bi urtez itxaron behar bada ere, SKAko bazkide txartela jasotzeko interesa duten pertsonen kopurua egonkortu dela ematen du. Ziur aski, 3.000 txarteleko muga hori hausteak promozio-estrategiak garatzea eskatuko du beste publiko batzuk erakartzeko, herriko gazteenak eta inguruko herrietakoak.

Iazko txartelaren erabiltzaileei buruzko datu deskriptiboek adierazten digute SKAko bazkide ziren 3.018 pertsonen % 65,5 Santurtzin bizi direla, % 21,2 Portugaleten, eta gainontzekoak inguruko hainbat herritan.

Bazkideen artean, % 62,5 emakumeak dira eta % 37,5 gizonak.

Erabiltzaileen adinari dagokionez, grafikoan adierazten diren tarteen arabera ehunekoetako banaketa ondokoa da:



SKAko bazkideek salgai jarritako eszena-jardueren txartelen % 35,3 hartu zuten eta Zine Komertzialean saldutakoen % 16,3 kontsumitu. Azkenean, Zine Klubaren kasuan, ikus-entzule guztien % 92 izan zen. Aurretik adierazitako parametro guztietan izan da SKAko bazkideen kontsumoaren igoera.

KOMUNIKAZIO-JARDUERA

SKAk, iaz, 463 iragarki labur egin zituen irrati-tan, 76 spot telebistetan eta 18 iragarki prentsa idatzian. Gainera, Karmengo jaietako Kontzertuak zirela-eta El Correo egunkarian 4 iragarki lortu ziren doan.

Era berean, jaietarako bi aldizkari egin ziren eta formatu askotako 12 eskuorri programazioaren inguruan. Guztira, 140.000 ale banatu edo herritarren postontzietan sartu ziren.

Zenbait jardueren inguruko 9 kartel egin ziren eta, taldeek eman zizkigutenekin batera, 5.000 ale baino gehiago banatu ziren guztira.

Iaz, plotter, pankarta eta mupiak egin ziren Santurtziko zenbait lekutan jartzeko, gainontzeko publizitatearen osagarri gisa. Metroan 5 mupi eta Bizkaiko Zubian 8 mupi jarri ziren, Antzerki Jaialdia iragartzeko.

Era berean, 16 plotter egin ziren erakusketen berri emateko eta beste 16 plotter hainbat saltokitan jartzeko, Antzerki Jaialdiaren berri emateko.

Inguruko herrietan ere zine eta eszena programazioaren 5.000 eskuorri banatu ziren, beste herrietako biztanleak etortzeko gure guneetara.

Gainera, Casa Torre Jauregiko pantailan Serantes Kultur Aretoak antolatutako jarduera garrantzitsuenak iragarri ziren eta jardueren informazioa Merkataritza arloari helarazi zitzaion herriko pantailetan jartzeko.

Komunikazio digitalari dagokionez, sare sozialen arloan, Facebook-en 4.493 jarraitzaile ditugu eta twitter-ren 800.

SKAko webgunea iaz 70.000 erabiltzailetik gora bisitatu zuten, guztira 140.000 saio ingurutan, 400.000 eduki baino gehiago begiratu zutelarik.

Bi mila posta elektroniko baino gehiago bidali zaie astero bazkideei eta horretarako helbide elektronikoa helarazi digutenei, SKAko programazioa gogoratzeko. Halaber, SKAk antolatutako emanaldi berezien berri beste zenbait ere ematen zaie: euskaltegiei, dantza ikastegiei, koadrilei...

Azkenik, 15 prentsaurrekoak, 19 Prentsa Oharrak eta zenbait hedabidetan hitzartutako hainbat elkarrizketa azpimarratu nahi ditugu, bai eta herriko erakunde eta pertsonekin izan ziren hainbat koordinazio eta informazio bilerak ere.

Santurtzin, 2016ko martxoaren 23an
SERANTES KULTUR ARETOKO ZUZENDARIA
Carlos Morán Arostegi